



Por dignidad, por militancia, porque os queremos vivos en casa

JOSE ANTONIO HURTADO, KRISTINA GOIRIZELAIA, JOEL SISTYAGUE, AGURTZANE EZKERRA, JON IURREBASO :: 05/11/2017

Por eso hemos llegado hasta aquí. Por eso nos han ocupado, pero no nos han vencido. Y estamos orgullosas y orgullosos porque no nos hemos rendido nunca.

Duintasunagatik, militantziagatik, etxean bizirik nahi zaituztegunako (*)

Garrantzitsua da gaur egun bizitzen dugun unea, hemen dauden espainiar eta frantses estatu konkistatzaileak eta okupatzaileak, inperialistak eta etnozidio askotako eragileak izateaz gain, Euskal Herri Langilearen (horixe dugu gure euskal nazio bakarra, eta berarengatik azkeneraino borrokatzeko prest gaude) klase-etsaiak dira, eta geroz eta izaera faxistagoa erakusten ari dira, gaixo edo bukaerako fasean dauden preso politikoak kartzeletan mantentzen baitituzte.

Era berean, Ezker Abertzale Ofizialak Katalunian du pentsamendua. Euskal Herrian miretsi egiten dira Kataluniako burgesia txikiaren posizioa, **batez ere**, eta indar independentistak zein ezkerrekoak, eta hala jarraitzeko animoak ematen zaizkie. Aldi berean, ohiko tesiturari ekiteko aprobeztatzen da (eta jarraipena ematen zaio): euskal erresistentzia politiko-militarraren azken 60 urteek ezertarako balio izan ote duten ala ez.

Ezker Abertzale Iraultzailea arreta handiz jarraitzen ari da Kataluniako emantzipazio nazionalaren aldeko borroka, indar independentisten artean adosturiko helburua den heinean. Alabaina, eta garrantzitsua da azpimarratzea, V. asanbladaren postulatuen ikuspegitik. Garrantzia du arrazoi argi bategatik: bere tesiak hasi berri den mende honetan garatu nahi dituelako, eta hori burutzeko praxi ondratu baten aldarrikapena egiten duelako.

Hilzorian dauden kide-zerrendan hamarka preso politiko ditugu Euskal Herrian. Zaharrak berri, atzeraezineko gaixotasunen bat pairatzen ari dira. Hemen EAJ eskuindarra dugu, praktikan PPrekin aliaturik dagoena oraindik ere. Jarraipen gisa, politiko profesionalak daude, espainiar trantsizioaren babesleak, penintsulako herri langileei traizio egindakoak eta klase-maila nabaria dutenak. Bestalde, PSOE dago, euskal herri langilearen kontrako borrokan azken ukituak eman zituen (torturak, GAL, ZEN plana...), horrez gain, Espainiako eta nazio penintsularretako Klase Langilearen etsaia da aspaldidanik. Diktadurarekiko amnistia, industria-birmoldaketa basatia eta abar onartu eta gero, sozialdemokraziaren halabeharrezko erretzea gertatu zen, horrenbestez, nagusi den sistemak Podemos asmatu egin zuen. Jarraian, sindikatuetako burokraziak datoz, sistemaren barnean eroso daudenak eta egun batean gauza bat eta hurrengoan aurkakoa esaten dutenak, funtsezko gaiei heldu gabe. Azken finean, kapitala eta haren produkzio-modua kuestionatu gabe uzten ditu.

Txiste negargarri bat bezalako kontua dugu hau. Espainiar eta frantses estatuek errepresioaz gain, kartzelaratzeko promesa egiten dio HAIEN Legearen baliozkotasuna

zalantzan jartzen duen orori. Bada, Sortu, Aralar, Alternatiba, EA eta gainerako alderdien egiturak ez daude prest estatu okupatzaileen errepresio-izpirik jasateko. Hemen, ia denok ondo dakigu aipatu egiturak, alderdiaren kontura edo ekonomikoki eroso bizi direnak, ez daudela prest, espainiar eta frantses estatuen jardunbide iraingarri eta hiltzailea dela kausa, ezta astebeteko gose-grebarik pasatzeko ere edo hiru eguneko greba orokorrik egiteko ere edo kartzelan aste pare bat emateko ere. Horren tristea eta latza da.

Gauzak horrela, ez dago ezta konfrontazio instituzionalik ere, ez herri mugimendu-mailan, ez eta, langile mugimendu-mailan ere. Ez dago enfrentamendurako gogorik (nahiz eta borroka-irudia eman nahi, antzekoen arteko adarjotzea besterik ez baita), boterearen inguruan inolako zalantzarik ez dagoelako.

Ezker abertzale ofizialearen espektroko inork ez du nahi, ezta ametsetan ere, boterea hartu Euskal Herriaren edo Euskal Herri Langilearen izenean, eta poliziak halakorik entzun ez dezala. Alegia, desobedientzia eta intsumisioari ekitea, euskal herritarrok geure legea egitea, azken finean, geure etorkizuna eraikitzea, ezker abertzale ofizialaren proiektuarekin zerikusirik ez duena, postmodernista, amore emaila eta iraingarria baita. Behintzat, Sortu deituriko alderdi-mugimenduko zati batez ari gara, besteen izenean idatzi, agindu eta pentsatzen duten horietaz hain zuzen ere.

Lotsa gehiago eta zehaztasun handiagoa eskatzen dugu, bai eta, egiazko analisi egokia egitea ere. Bada, **espainiar estatuan, Euskal Herria eta penintsulako gainerako nazioetan Francok bizirik dirau, eta beldurra hezurretaraino sartuta dago, horretan datza borroka hauspotzeko herri okupatu eta erreprimituon ausardiarik eza.**

Jordien! sostenguearekin kolaboratzeko tema handia puri-purian dago egunotan (nori bururatu ote zaio "Jordien" gai hori? **Ez litzateke zuzenago izango, hango gorabeherak ikusita, preso politiko katalanen KOLEKTIBO baten aurreikuspena egitea?**

Edozein kasutan, ez al daramate urte mordo bat kartzelaturik bi katalan emakume preso politiko, euskal eta katalan kausaren aldeko militante izateagatik, eta katalan ezkertiarrek, internazionalistak eta lehenagoko erakunde politiko-militar bateko kide izateagatik? Bi preso ditugu Katalunian, bai. Baina, diogun bezala, baditugu ere bi euskal eta katalan emakume preso politiko. Horietako bat lehenago kartzelan izanda zegoen Katalunia libre eta sozialistaren alde borrokatzeagatik. Bien kartzelaldiak batuz gero, berrogei urte inguru daramatzate barruan egunez egun beteta. Zein dira gaiaren abiapuntuak halako terminoetan hitz egiten dugunean?

Euskal Herrian biderkatzen ari dira atzeraezineko gaixotasunen bat pairatzen ari diren euskal preso politikoak, eta hori Euskal Herriaren alde dena emateko prest dauden gudariekin gertatzen da, kasualitatea izango ote da? Estatuek indartzen dituzte euren lerroak. Kartzelari batzuk jubilatzen direnean, gaztetan entrenamendu-guneetan eta gimnasioetan trebatu diren ordezkioak agertzen dira gure gudarien espetxeetan, eta Amerika, Filipinak, Ginea, Kuba... inbaditu zituen Espainia defendatzeko prest daude. Gutarrak, ordea, ziegetan giltzapeturik, deportaturik edo erbesteraturik eta orain dela 10, 15, 20, 30 urte kartzelan erori ziren berberak dira, beti Euskal Herria Sozialistaren ametsa gogoan dutelarik.

Ilusioa da figura hori, gure herriaren aldeko borrokari eustera eta gurea dena aldarrikatzera... eraman gaituena, eta inork ez du hori aldatuko. Ez dugu inolako aldaketarik onartuko, milaka euskal herritarrok halaxe nahi dugulako. Milaka gara borrokarako prest gaudenok, eta ez hain zuzen espainiarrek eta eusko burgesiaren bizizaleek nahi izango luketen bezala.

Bizi-zikloak eta ziklo errepresiboak bere horretan jarraitzen dute, alabaina, askoz ere okerrago dauden bizpahiru gudari ditugu, eta badirudi hemen ez dela ia ezer gertatzen. Sumindu egiten gaitu pentsatzea Euskal gizartea ohituta dagoela Espainiak eta Frantziak egiten diguten zapalketarekin. Ohitu al gara gure gudariak txakurrak bezala hiltzen ikustera espainiar eta frantses zuloetan? Ibon, Oier, Aitzol (eta beste batzuk) pentsatu dezakegun egoera fisikorik okerrenean daude.

Argi hitz egin dezagun, hilotz bat jarri digute mahai gainean; Kepa del Hoyo. Bake soilaren aldeko diskurtso faltsuetatik baino haratago, mahai gainean jartzen digute arrazoi batengatik, bada, borrokaren bideari ekiten badiogu, zer gertatuko den jakin dezagun. Dena den, badaude baten batzuek musuak oparitzeaz gain, hemen okupaziorik eta preso politikorik ez dagoela esaten dutenak demokrazian bizi garelako... "Azken finean, denok pixka bat pasatu garelako..." Baina, ez. Hemen gerran izango gara harik eta Euskal Herriaren eskubide nazionalak eta sozialak eta beraren identitatea berreskuratu arte.

Egin dezagun zerbait. Dagoeneko zenbait lagunek gauzak egiten dabilta. Norberak ahal duena egiten du. Besteak beste, deialdi masiboa egiten dugu Bilbon datorren azaroaren 18an egingo den manifestazio nazionalen parte hartzeko, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak deitua honako goiburu honekin: ANTOLAKUNTZAZ ETA BORROKAZ: AMNISTIA. Manifestazioa Bilboko Jesusen Bihotza plazatik abiatuko da arratsaldeko 18:00etan, eta Kale Nagusia zeharkatu ostean, Arriaga antzokiaren aurrean izango du amaiera-ekitaldia. Aldez aurretik, Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Mugimenduak autobusez egingo den martxa bat iragarria du, martxa azaroaren 11n abiatuko da Alcala-Meco espetxera, bertan kartzelaturik dauden Ibon Iparragirre eta Manu Azkarateren egoera salatze aldera (gaixotasun larriak pairatzen ari direnak, enegarren aldiz esaten badugu ere).

Deialdi xume bat egiten dugu 1936-39ko gerran Euskal Herriaren defentsan eta faxismoaren kontra, bizia arriskuan jarrita, borrokatu zuten gudarien aitortza egin dadin, geroago, gerrillan ibilitakoak penintsulako eta bestelako nazionalitatea zuten hainbat eta hainbat borrokalarekin batera. Azken 60 urteotan lehen lerroan izan dira dena ematen bihozgabeko errepresioari aurre eginez.

Gure errespetua jende guztiari, bai. Baina badiogu ere euskal preso politikoak, deportatuak eta iheslariak Euskal Herriko seme-alabak direla, bai eta, gudariak ere, eta gure bizitza baino maiteago ditugula. Borrokan elkarrekin ibili garenok bagenekien haren zergatia: Euskal Herria independente eta sozialistaren alde egiten genuen.

Era berean, bestelako protesta-dinamikak ere jarri dira abian. Batzuek, Ibon, Oier, Aitzol eta gainerakoen egoera larria salatu eta haien berri ematen dute burura etortzen zaizkien modu guztietan. Baina hori dena ez da nahikoa izango. **Beharrezko da behar besteko presio-baldintzak sortzea espainiar eta frantses estatuek atzera egin dezaten. Guk**

borrokatzen ez badugu, inork gehiagok hartuko du parte borrokan.

Larriki gaixo dauden preso politikoak berehala askatzea exijitzen dugu. Gure esku dago behar besteko presioa sortzea. Espainia eta Frantzia ez dabilta mendeku bila (aldizka eta jakinaren gainean hori adierazten duenari esaten diogu), beldurra erraietaraino sartu nahi digute, eta horixe da mahaigaineratzen diguten etsenplua Euskal Herria Sozialistaren aldeko borrokari eutsi nahi badiogu. **“Abertzale eta ezkertiarra izango zara bai, baina larrutik ordainduko duzu. Kartzelarekin ordainduko duzu gutxienez”**. Euskal herritarrok eta mundu osoko iraultzaile asko horren jakitun gara.

Horregatik iritsi gara honaino. Horregatik okupatu gaituzte, baina ez gaituzte garaitu, eta inoiz errenditu ez izateaz harro gaude. Okupatuak bai, baina ez, inola ez garaituak!

Berriro esango dugu, badaezpada entzun ez bazaigu. Inoiz errendituko ez garelako. Sufrimendurik egongo da eta kontrakoa esaten duena gezurretan ari da. Guk zera diogu: prest dagoenak borrokatu dezala. Baina hori bai, beti eutsiko diogu euskal preso politikoen defentsari eta beti borrokatuko dugu Euskal Herria independente, sozialista, euskaldun eta antipatriarkalaren alde.

Borroka da bide bakarra. Gora Euskal Herria Independiente eta Sozialista!

(*) Iritzi artikulua hau, urriaren amaieran idatzita dago

Jose Antonio Hurtado, Kristina Goirizelaia, Joel Sistyague, Agurtzane Ezkerra, Jon Iurrebaso.

(euskal iheslari eta preso politiko ohiak)

Por dignidad, por militancia, porque os queremos vivos en casa (*)

Hoy en día vivimos un importante momento donde los estados español y francés conquistadores y ocupantes, imperialistas y campeones de etnocidios y enemigos de clase del Pueblo Trabajador Vasco (única nación vasca por la que estamos dispuestos/ a luchar hasta el final) muestran un poco más su ser fascista manteniendo en prisión a presos políticos vascos enfermos y en fase terminal.

Al mismo tiempo, desde la Izquierda Abertzale Oficial, se piensa en Cataluña. Se admira la posición de la, **sobre todo**, pequeña burguesía catalana y de las fuerzas independentistas y de izquierda. Se les anima a continuar. Al mismo tiempo se aprovecha e insiste en la tesitura acerca de si los últimos 60 años de resistencia vasca político-militar han valido para algo.

La Izquierda Abertzale Revolucionaria mira con la mayor atención el desarrollo de la lucha por la emancipación nacional de Cataluña, en la medida que es el objetivo consensuado entre las fuerzas independentistas. Pero lo observa, y es importante subrayarlo, desde los postulados de la V asamblea. Y es importante por una razón muy sencilla, porque pretende desarrollar sus tesis en este siglo que viene de comenzar. Y reivindica que pretende hacerlo desde una praxis honrada.

En Euskal Herria tenemos decenas de presos políticos que están en la lista de compañeros/as que van a morir en un plazo concreto y próximo. No es nada novedoso, padecen una enfermedad irreversible. Y tenemos al PNV, es decir la derecha, que sigue aliada en la práctica con la derecha española del PP. Continuamos por los patrocinadores de la transición española, políticos profesionales y con posición de clase evidente que traicionaron a los pueblos trabajadores de la península. Tenemos al PSOE la guinda del momento para hacer la guerra al Pueblo Trabajador Vasco (incluidas torturas, GAL, plan ZEN...). Enemigos seculares de la Clase Trabajadora Española y de otras naciones de la península. El sistema imperante inventa a Podemos por el queme obligado de la socialdemocracia con su amnistía a la dictadura, reconversión industrial salvaje etc. Y seguimos por los sindicatos de los que sus burocracias se sitúan cómodas dentro del sistema y un día dicen una cosa y la contraria al siguiente. Siempre sin cuestionar el fondo. En definitiva sin cuestionar al capital y su modo de producción.

Esto es como un chiste horrible. El estado español, y francés reprimen y prometen cárcel a todo aquel o aquella que cuestione la validez de SU Ley. Pues bien, la estructura de Sortu, Aralar, Alternativa, EA y demás no están dispuestas a sufrir ningún tipo de represión por parte de los estados que nos ocupan, reprimen y explotan. Aquí, casi todo el mundo sabemos que esas estructuras, que viven del partido o tienen sus vidas económicamente solucionadas, no están dispuestas ni a pasar una semana en huelga de hambre o hacer 3 días de huelga general o pasar un par de semanas en la cárcel por la insultante y asesina práctica de los Estados español y francés. Así de triste. Y de grave.

En ese estado de cosas, no hay ni siquiera confrontación institucional, ni a nivel de movimiento popular, ni obrero. No hay voluntad de enfrentamiento porque no hay ninguna duda acerca del poder.

Nadie del espectro de la Izquierda Abertzale Oficial pretende ni en sueños, y que no lo oiga la policía, tomar el poder en nombre ni de Euskal Herria ni del Pueblo Trabajador Vasco. Es decir, la desobediencia y la insumisión, la ley que las vascas y vascos construyamos para nosotras mismas y mismos, nuestro futuro en definitiva, no tiene nada que ver con el proyecto pos modernista, claudicante y denigrante de la Izquierda Abertzale Oficial. Al menos en la parte que escribe, dirige, cobra y piensa por los demás del denominado partido-movimiento Sortu.

Más vergüenza, y más concreción, es lo que pedimos. Análisis cierto y certero. Es decir que **en el estado español y en Euskal Herria y resto de naciones peninsulares, todavía vive Franco, pero también el miedo incrustado en los huesos y por lo tanto la falta de fuelle y valentía para luchar por parte de los que estamos ocupados y reprimidos.**

Ahora resulta que nos empeñamos en colaborar para sufragar a los ijordis! (¿a quién se le habrá ocurrido el tema de los "jordis"? **¿No sería más correcto vislumbrar, dadas las circunstancias, a un COLECTIVO de presos y presas políticas catalanas?**

Y en todo caso ¿no existen dos presas políticas catalanas militantes de la causa vasca y catalana que llevan un montón de años encarceladas por ser catalanas de izquierda, internacionalistas y militantes de una organización que fue político-militar? Tenemos dos

presos en Cataluña, bien. Pero, como decimos, tenemos otras dos presas políticas catalanas y vascas. Una de ellas ya estuvo encarcelada en la lucha por una Cataluña libre y socialista. Entre las dos llevan casi 40 años en la cárcel cumplidos día a día. ¿Desde qué posiciones partimos cuando hablamos en esos términos?

En Euskal Herria se nos multiplican los presos políticos vascos enfermos con carácter irreversible y eso, será casualidad, se corresponde con los mismos gudarís dispuestos a darlo todo por Euskal Herria. Los estados refuerzan sus líneas. Unos carceleros se jubilan y otros van a las cárceles en las que están nuestros gudarís con su juventud trabajada en los campos de entrenamiento y en los gimnasios dispuestos a defender la España que invadió América, Filipinas, Guinea, Cuba... Los nuestros y las nuestras, en su celda, en su deportación, y en el exilio, son los mismos que cayeron en la cárcel hace 10, 15, 20, 30 años. Siempre soñando con Euskal Herria Socialista.

Y eso es ilusión, la que ha llevado también a nuestro pueblo a seguir luchando, a reivindicar lo nuestro... y nadie va a cambiar eso. Y no lo van a hacer porque somos miles los vascos y vascas que no lo vamos a permitir. Somos miles los que estamos dispuestos a luchar. Y no precisamente como desearían los españoles y los vividores de la burguesía vasca.

Y el ciclo vital y el ciclo represivo siguen, pero tenemos dos (¿tres?...) gudarís que están físicamente peor que peor y aquí parece que no pasa casi nada. Nos indigna pensar que la sociedad vasca se ha acostumbrado a que España y Francia nos pisén. ¿Nos hemos acostumbrado a que nuestros gudarís mueran como unos perros en los agujeros de los estados español y francés? Ibon, Oier, Aitzol, (y otros y otras) están en la peor situación física que nos podamos imaginar.

Hablemos claro, nos han puesto un muerto encima de la mesa. Kepa del Hoyo. Y más allá de los falsos discursos en favor de la paz a secas, nos lo ponen encima de la mesa para que sepamos lo que va a ocurrir si luchamos y, así y todo, tenemos que ver a cierta gente regalando besos y diciendo que aquí no hay ocupación, que no hay presos políticos porque hay democracia....Porque "al fin y al cabo todos nos hemos pasado un poco..." Pues no. Aquí estamos en guerra mientras no se restauren los derechos nacionales, sociales y la identidad de Euskal Herria.

Hagamos algo. Hay gente que ya mismo está haciendo cosas. Cada una lo que puede. Entre otras cosas hacemos un llamamiento masivo para acudir a la manifestación nacional que se celebrará el próximo 18 de Noviembre en Bilbao convocada por el Movimiento por la Amnistía y Contra la Represión: ANTOLAKUNTZAZ ETA BORROKAZ: AMNISTIA. La misma partirá de la plaza del Sagrado Corazón de Bilbao a las 18 horas, recorrerá la Gran vía y terminará en el Arriaga. Y aún antes, el Movimiento por la Amnistía y Contra la Represión viene de anunciar una marcha en autobuses, que partirá a Madrid el 11 de noviembre, donde mantienen encarcelados a Ibon Iparagirre y Manu Azkarate (gravemente enfermos y lo repetimos por enésima vez).

Hacemos un humilde llamamiento a que la gente reconozca que nuestros gudarís estuvieron en 1936-39 defendiendo a Euskal Herria y enfrentándose al fascismo con su vida, y luego en la guerrilla junto con otras tantas y tantas de otras nacionalidades de la península y más allá. Han estado en los últimos 60 años. Dándolo todo en primera fila ante la represión más

despiadada.

Respeto a todo el mundo, sí. Pero también decimos que los presos políticos vascos, deportados y huidos son hijos e hijas de Euskal Herria y son gudaris y les queremos más que a nuestra vida. Los que hemos combatido juntos sabíamos porque luchábamos y luchamos. Por Euskal Herria independiente y socialista.

Hay otras dinámicas de protesta en marcha. Hay quienes denuncian e informan de la grave situación de Ibon, Oier, Aitzol....de todas las maneras que se les ocurre. Y todo eso no será suficiente. **Es necesario crear las condiciones de presión suficientes para que los Estados español y francés den marcha atrás. Nadie va más a luchar si no lo hacemos nosotros y nosotoras.**

Exigimos que pongan inmediatamente en libertad a los presos políticos gravemente enfermos. Está en nuestras manos presionar lo suficiente. España y Francia no quieren venganza (se lo decimos a quien lo expresa periódica y conscientemente), quieren meternos el miedo en las entrañas y éste es el ejemplo que nos ponen encima de la mesa para los que piensen seguir en la lucha por una Euskal Herria Socialista. **“Serás abertzale y de izquierdas pero te va a salir muy caro. Tan caro como la cárcel como mínimo”**. Los vascos y vascas y muchos y muchas revolucionarias de todo el mundo lo sabemos.

Por eso hemos llegado hasta aquí. Por eso nos han ocupado, pero no nos han vencido. Y estamos orgullosos y orgullosos porque no nos hemos rendido nunca. Okupatuak bai, baina ez, inola ez garaituak!

Repetimos por si no se nos oye. Porque no nos vamos a rendir nunca. Habrá sufrimiento y el que diga lo contrario miente. Nosotros decimos: Que luche quien esté dispuesto o dispuesta. Pero seguiremos siempre defendiendo a los presos políticos vascos y vascas y siempre lucharemos por nuestra Euskal Herria Independiente, socialista, euskaldun y antipatriarcal.

Borroka da bide bakarra ¡Gora Euskal Herria Independiente y Socialista!

(*) Este artículo se redactó a finales de octubre

Jose Antonio Hurtado, Kristina Goirizelaia, Joel Sistyague, Agurtzane Ezkerra, Jon Iurrebaso

(ex huidas y ex presas/os políticos vascos)

<https://eh.lahaine.org/por-dignidad-por-militancia-porque>